



Eskola Kirolaren aldeko adierazpen bateratua

Agerraldia egin zuten ekimenean murgilduta dauden eragileek, astelehen eguerdian / 7


AIURRI

Erromesaldia, Aralarko santutegirantz

Aralarko San Miguel santutegiko atea berreraikitze lanak Albaola Itsas Faktorian egin dituzte. Egunotan, idiek bultzatuta, santutegira eraman dituzte erromesaldian. / 5



Erretiroa hartu du Txani Rodriguez Urrietako Egape Ikastolako sukaldariak / 4



Elkarrizketa, Leizaran eskubaloitako taldeko irati Zinkunegi atezainari / 9



Ander Egaña Gaston, Euskadi-Finlandia saskibaloitako partidan protagonista izan zen andoaindarra / 11



SARRERAK: ORIAMENDI.EUS

FINAL HANDIA

etb1

EKAINAK 16, ASTELEHENA. 18:00etan / GALARRETA JAI ALAI

IKUSKIZUN PARTIDA: ANSA II · JUANENEA VS EZKURRA II · AZPIROZ

ERREMONTARIKO FINALA

URRIZA · LARRAÑAGA VS ALDABE · BARRENETXEA IV

ORLA MENDI
HERMANIKO Udala
EUSKAL LEKUA
65 SUKIA
Orona
VOLVO
AIURRI



Oialume zar
Ingenieria

Bideo-sorta zabala Aiurri.eus gunean



AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA

POSTONTZIA

ASUNCION KLINIKAKO LANGILE BATZORDEA ASUNCION KLINIKA

Tolosaldeko osasungintza % 100 publikoa, zerbitzu guztiekin eta Asuncioneko langileekin!

Azken egunotan publiko egin da EAEko Osasun Ituna azken txanpan dagoela, eta litekeena dela hilabete hau amaitu baino lehen akordioa lortzea. Badirudi eztabaidatzen ari diren gaietako bat osasun-sistemako lankidetzat publiko-pribatuaren gaia dela. Eta hor sartzen da bete-betean Tolosaldearen etorkizun sanitarioa.

Bai Asuncion Klinikako langileek, bai Tolosaldeko herritarrek urte asko daramatzagu eskualdeak ospitale eta osasun-zerbitzu publikoak izan ditzan mobilizatzen, Gipuzkoako

gainerako ESiek duten bezala.

Eusko Jaurlaritzak Tolosan ospitale publikoa eraikitzea erabaki zuen 2019an. Horretarako, plan funtzional bat jarri zuen martxan, 2023an jendaurrean aurkeztu zena. Asuncioneko langileen eta gizartearen aldarrikapenak inoiz ez ditu jaso plan honek.

Plan funtzional hori oso laburra da zerbitzuei dagokienez; adibidez, ez du garbiketa-zerbitzua aipatzen, ezta sukaldea ere; ospitaleratutako kirurgia beste ospitale batzuetara bideratuko da, pediatriako

larrialdirik gabe, eta obstetriziarik gabe. Hori guztia erreferentziazko Eskualdeko Ospitale izatetik oso urrun geratzen da. Gainera, baditugu Eibarko edo Gernikako kasuak, eskualdeko ospitaleen antzik ez dutenak. Era berean, ez du aipatzen hainbeste urtetan zerbitzu hori eman duten langileekin zer gertatuko den.

Beraz, eta osasun-mahaiaren balizko akordio baten aurrean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu hasierako plan funtzionala baztertzeko eta gure aldarrikapenak kontuan hartzeko:

- Ospitalea % 100 publikoa, hau da, langile eta zerbitzu guztiak publikoak izatea.
- Zerbitzu guztiak dituen ospitalea izatea: eskualdeko erreferentziazko ospitalea izatea, Tolosaldeko herritarrei arreta integrala eman ahal izateko.
- Asuncioneko langileak ospitale publikoan subrogatzea. Subrogazio-prozesu hori posible da. Onkologikoan gertatzen ari den bezala, borondate politikoa baino ez da behar. Osasun sailburua den Alberto Martinezei dei egiten diogu Asuncion Klinikako enpresa-batzordea bilerara

dei diezan, orain arte ez baitugu jaso biltzeko egin ditugun eskaeren erantzunik, ez eta gure egungo eta etorkizun hurbileko egoerari buruzko informaziorik ere.

Azkenik, LAB eta ELA sindikatuok dei egiten diegu Asunción klinikako langile guztiei eta, oro har, Tolosaldeko herritar guztiei hilaren 14an Tolosan egingo diren 12:00etako mobilizazioetan parte hartzera, eta eskualdeko ospitale % 100 publiko baten alde borrokatzen jarraitzera, zerbitzu guztiekin eta Asuncioneko langileen subrogazioarekin.

Zubi-Etxeko bizilagunen bilkura

Joan zen maiatzaren 31n Kaleberriko Leizaran jatetxean elkartu ziren hainbat herrikide, lagunarteko bazkaria egiteko. Bazkardoko Zubi-Etxen bizi izanak elkartu zituen eta, nola ez, iraganeko hainbat pasarte biziberritu zituzten. 1947an altxa zuten Zubi-Etxe eta duela gutxi bota dute Ama Kandida etorbideko hirigintza plan berria martxan jartzeko. Zubi-Etxeko bizilagunak langile familiak ziren, Tejas y ladrillos de Oria eta Intex enpresetan lanean aritzen zirenak.



AIURRI

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietak).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:

ALIATUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Txani Rodriguez, Egape Ikastolako jantokian. AIURRI

"Familia izan dut eskola"

TXANI RODRIGUEZ EGAPE IKASTOLAKO SUKALDARI OHIA

Maiatzaren 17an hartu zuen erretiroa Txani Rodriguezek, Egape Ikastolako sukaldariak. Ia hiru hamarkada eman ditu eskolan lanean

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Orain 29 urte lur hartu zuen Txani Rodriguezek ikastetxean, Azkorte eskola publikoak eta Egape Ikastolak bat egin aurretik, hain justu ere. Zerbitzari gisa lehenengo eta sukaldari, ondoren, Urnietako ehunka haurren tripa bapo bete du hiru hamarkada luzetan. Hala, jangelako atea ireki dizkio Aiurri, bere ibilbideari errepasoa egiteko asmoz. Su txikian kozinatuta eman ditu erantzunak, jakina.

Ia 30 urteko bidea egin ondoren erretiroa hartu duzu, Txani. Haste-ko, zer moduz zaude?

Orain? Oso ondo! Hasierako egunetan, nahiz eta lasaitasuna sentitu, zerbait falta zitzaidala sumatzen nuen, azkenean, asko aldatu dut errutina, erretiroarekin. Lehen, goizeko 09:00etarako sartzen nintzen lanera: aldatu, garbitu eta janaria prestatzeki ekiteari nion. Beste egun batzuetarako ziren lanak ere aurreratzen nituen. Bestela, lankideekin afalduz ospatu nuen

eta oso lore-sorta polita zein otordu baterako bi pertsonentzako bonua oparitu zizkidan eskolak.

Hiru hamarkada igaro dira Azkorte-ko jangela lehenengoz zapaldu zenuenetik. Aise aldatu zara zu. Zertan aldatu da eskola?

Hemen (Egape Ikastolako DBH-ko eraikinean) hasi nintzenean, Azkorte eskola publikoa zen, oraindik. Alegia, jada, lanean nintzen hemen Egape Ikastolarekin fusionatu zenean. Begirale gisa hasi nintzen jangela

honetan, guraso elkartearen bidez, orduan ez baikenuen catering-ik. Beranduago Etxeko Janak enpresak egiten zuen kudeaketa eta, ondoren, Auzo-lagun enpresak. 2007ko ikasturte hasieran, sukaldari-lanetan hasia proposatu zidaten. Arratsaldez ikastaroa egiten aritu nintzen, bost hilabetez, eta, horrez gain, garaiko sukaldariak, Lupek, irakatsi zidan, kopuruen kalkuloa egiten eta, adibidez. Bada, horrela, eskolako sukaldaria izan naiz, aurtengo maiatzaren 17ra arte.

Eraikinak gutxi gorabehera berdin jarraitzen du: irakasle berri pila dago, betikoetatik gutxi gelditzen dira. Garai batean, jangelan bazkaltzen zuten irakasleek, eta kafea ere hemen hartzen zuten. Harremanak desberdinak dira, orain, jende pila igaro ohi da eskolatik, bistaz ezagutzen ditut, baina ez daukagu horrenbesteko harremanik.

Bestalde, sukaldeari begira, asko aldatu da: sukaldari-lanekin hasi nintzenean, ez neukan, esaterako, patata-zuritzeko tresnarik, ez eta ebakitzailerik ere. Eskuz egiten nuen guztia. Gogoan dut nola Manu zuzendariak esaten zidan soldaduskan bezala arintzen nintzela. Zentzu horretan, lanerako tresnak aldatu dira.

Horrenbeste urte lanean eta ez dizu astirik eman etorkizuneko DBHko eraikin berriaren sukaldeaz egazutzeko.

Ez dut probatuko eta ez zait axola (barreak)... Oso handia izango da sukalde eta garbitzeko nahiago dut orain arte izan dudana. Neurria hartuta nion eta garbiketa-orduak garbiketa-orduak dira...!

Familia giroa. Horixe da Azkortetik igarotako ikasleek eskolaz nabarmentzen dutena. Horrela bizi izan duzu zuk ere?

Familia izan dut eskola. Gertuko harremana izan dut guztiekin, irakasleekin, ikasleekin, beste lankideekin... Aspaldi eskola amaitu zutenek ere gaur egun kaletik jaramon egiten didate, nirekin hitz egiten gelditzen

"GERTUKO HARREMANA IZAN DUT IRAKASLEEKIN, IKASLEEKIN, BESTE LANKIDEEKIN..."

dira. Oso pozgarria da hori niretzat.

Urteen poderioz, jangelako eskaintzari dagokionez, zeintzuk dira nabaritu dituzun aldaketa nagusiak elikadura-ohituretan?

Gaur egun, guk prestatzen dugu hemen janaria, menua Auzo Lagunek bideratuta. Behar dudan janari-zerrenda bidaltzen diot eta generoa ekartzen didate, baina kozinatu, nik egin izan dut. Orain urte batzuk, galdaran istripua izan eta egun batzuetan ez genuen gasik izan. Horrela, prestatutako janaria ekarri behar izan genuen... Jendeak aldaketa handia sumatu zuen!

Dena dela, orokorrean, geroz eta okerrago jaten dute ikasleek: makarroiak, arroza, dilistak, xerra... Horiek arazorik gabe, baina barazkiak, osorik, xehatu gabe, oso gaizki. Guztia purean zerbitzatzen genien, eta batzuetan platerakoa ere ez zuten amaitzen. Horrela, janari asko botatzen da. Bestelako menuak ere prestatu izan ditut: zeliakia dutenentzat, gantzik gabekoa kardiopatia zuen ikasle batentzat, alergia berezientzat, begetarianoentzat, txerririk gabekoa musulmanentzat...

Maiatzaren erdialdean itxi zenuen eskolako etapa. Zeren falta sumatuko duzu gehien? Eta zerena ezertxo ere ez?

Olatz, Toñi eta hiruon arteko giroa, baita jada eskolan lan egiten ez duen Edurne ere. Bazkaldu ondoren kafea hartzen genuen, gure kontuez hitz egin bitartean... Psikologoaren kontsultan egotea bezalakoa zen! (Barreak). Lagunarteko kafea zen eta bazkaltzeaz berandu bukatzen zuten ikasleak ere gelditzen ziren gurekin.

Zer ez dudan botako faltan? Orain ez dut iratzargailua jarri beharrik ere, esnatzen naizenean esnatzen naiz eta kito!

Zein aholku emango zenioke eskola-sukaldari gisa hasi nahi duen norbaiti?

Bere lana ondo egin dezala. Erritmoa bera da, baina kozinatu beharrekoa aldatu egiten da, egun batetik bestera. Gainera, nork bere modua dauka janaria prestatzeko: Luperekin izan nintzen ni, eta gutxi gorabehera mantendu egin dut denboran harekin ikasitakoa. Sukaldetik atera eta jangelara gerturatzen nintzen, ikasleekin hitz egitera, gure artean pixka bat harremana estutzeko.

Harrera beroa, Aralar aldera doazen erromesei

2024ko urrian, erasoja jasan zuen Aralarko San Miguel santutegiko sarrerak, ezezagunek bertako atea erre baitzuten. Bada, Albaolak hartu du berau berreraikitze ardura. Orain, erromesaldian doaz helmugara, atea soinean, idiek bultzatutako gurdi batekin



Eguerdi partean ailegatu ziren Urnietara modu artisauan egindako atea. AIURRI

Erredakzioa URNIETA
Ezohiko hitzorduarekin ekin zioten eskualdeko herritarrek asteari. Izan ere, geldialdi berezia egin zuen Urnietan, Albaoatik hasita, Aralarko San Miguel santutegira doan erromesaldia. 2024ko urrian, erasoja jasan zuen santutegiko sarrerak, ezezagunek bertako atea erre baitzuten. Horrela, atea berriro modu arti-

sauan berreraikitze ardura hartu du Pasaiaiko Albaola Itsas Kultur Faktoriak eta, Jexux Mari zein Aitor Matxain aitasemeen idiak bultzatuta, erromesaldian dabilta egunotan, Nafarroarantz.
Eguerdiko 12:00ak aldera ailegatu ziren idiak herrira, atea soinean. Bada, Jauregi burdindegian egin zieten harrera ber-

tara gerturatutako dozenaka herritarrek. Egape Dantza Taldeak agurra dantzatu ostean, hitza hartu du Mikel Ormazabal apaizak, San Miguel santua ondoan zuela. Jarraian, hitzordua biribiltzeko, zizka-mizkak jateko aukera izan zuten ibiltariak, atsedean hartzearekin batera, Andoaingo noranzkoan bidean aurrera egin baino lehen.



Agurra, EDTko Nora Agirre Lizaso eta Kimetz Cabanillas Gabirondo dantzarien eskutik. AIURRI



Mikel Ormazabal apaizak hitza hartu zuen ekitaldian. AIURRI



Lourdes Marquinez, Isabel Ros eta Maria Soledad Saez de Ibarra Presentacion de Maria ikastetxeko ahizpak hurbildu ziren Erratzu aldera, astelehen goizean. AIURRI

Urnietatik iritsi zen Andoainera, eta Sorabillatik abiatu zen Amasa-Villabonarantz

Urnietan barrena igaro ostean, eguerdi aldera iritsi zen erromesaldia Andoainera. Ikusmin handiena Goikoplazan izan zen, San Martin Tourseko elizatik kanpai-errepikarekin eman baitzieten ongiatorria. Espaloiaaren alde banatan ziren ikusleek unea eskuko telefonoarekin grabatzeko aukera baliatu zuten. Sorabillatik Adunako bidea hartu zuten.



Haurrak, jolastokian, idiei begira. AIURRI



Kale Nagusian barrena egin zuten ibilbidea. AIURRI



Zumea kalera iritsi zen unea. AIURRI



Andoaingo PSE-EE udal taldeko zinegotziak. PSE-EE

"Andoainek gehiago merezi du", dio alderdi sozialistak

Udal korporazioa martxan jarri zela bi urte bete direnean, PSE-EEK balorazioa egin du

Erredakzioa ANDOAIN

2023-2027 agintaldia erdialdera iritsita, Udal talde sozialistak adierazpena egin du. Ohar bidez eta agerraldirik egin gabe, bi urteotako balorazioa zabaldu du sare sozialen bitartez. Andoaingo PSE-EEK adierazi duenez, legegintzaldiaren azken bi urteetan EH Bilduren aldaketarako promesak, leloak eta esloganak "hutsik" eta "benetako edukirik gabe" daudela erakutsi dute. Udal talde sozialistak aipatzen dituen adibideen artean daude 2023tik geldirik dauden kontratuak. Hots, Bastero Kulturenearen kudeaketa, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua eta Anbrosia Olabide eguneko zentroko zerbitzua. Eta gastu publikoari dagokionez, "arduragabekeria" iruditzen zaie bi pabiloi industrial alokatu izana, indarrean zegoenari aldezu eretik uko egin gabe.

PSE-EEK EH Bilduren ordezkio eredu bat defendatzen du, Andoaingo benetako eta premiazko beharrei erantzungo diena: "Oraingoa ez doa martxa onean. Andoainek lidergoa, seriotasuna eta erronka handiei aurre egingo dien talde konprometitua behar ditu. Sozialistok erakutsi dugu lehentasunak kudeatzeko eta ezagutzeko gaitasuna dugula, eta lanean jarraituko dugu Andoain bizitzeko, lan egiteko, gozatzeko eta elkarrekin bizitzeko leku hobea izan dadin. Kudeatzeko beste modu bat posible delako: Andoainek gehiago merezi du".

**"BENETAKO" ETA
"PREMAZKO"
BEHARREI
ERANTZUTEA
ESKATZEN DUTE**

Asfaltatze-lanak

Asfaltatze lanei ekin diete Erroitz kalean eta Kaletxikiko trenbidearen azpiko pasabidean. Horrek eragina izandu trafikoan eta garraio publikoan. Hiribusak ezin izan du Aranaztegiko industriguneraino ibilbidea osatu eta, bestalde, Arantzibia kalea norabide bikoitzekoa bilakatu dute sARBIDEEN sARRERA-irteera bermatzeko. Udalak bandoa zabaldu du auzoko atarietan.



AIURRI

2025-2026 ikasturteko kirol-eskaintza, prest

Igeriketa ikastaroak 2025eko urriaren 1etik 2026ko ekainaren 20a bitarte izango dira eta, gainontzeko jarduerak, 2025eko irailaren 17tik 2026ko ekainaren 20ra. Egunotan, etxez etxe banatzen ari diren xehetasun guztiak biltzen dituen esku-orria

Erredakzioa ANDOAIN

Deialdi berrian berrikuntzak, nagusiki, hiru dira: talde gehiago izango dira 65 urtetik gorakoentzako soinketa eta pilatesa egiteko; gluteoak, abdominalak eta hankak lantzen dituen GA-Peko bi eguneko taldeak eskainiko dira; eta, azkenik, igeriketa egokitua eskainiko da 3-16 urte bitartekoentzat eta 16 urtetik gorakoentzat. Ikasle berrien kasuan, izena emateko epea ekainaren 16an irekiko dute eta azken eguna ekainaren 29a izango da. Izena eman daiteke kirola.andoain.eus webgunearen bidez edo Allurralde kiroldegiko harrera-gunean.



GAP kirol jarduera. FIVESTARS



AIURRI

Haurrekiko tratu onaren aldeko ekimena

Andoaingo Udalak indarrean du haurren tratu onerako eta babeserako plana eta, egunotan, merkatariek bat egin dute plan horrekin. Xedea herriko saltokiak haur eta nerabeentzat gune seguru bilakatzea da. Bere garaian izena eman zuten merkatariek trebakuntza jaso

zuten eta astelehenean egitasmoarekin lotura zuzena duen dokumentazioa jaso zuten. Hainbat merkataririk hurbildu ziren agerraldira: Ciclos Patxi, Elizondo, Ormendi, Briko Goros, Betilore, Iturbe, Amantegi, Gamer eta Pepi merkatalguneetako ordezkariak.



Eskola Kirola egitasmoko artxiboko irudia. GFA

Multikirolaren aldeko adierazpen bateratua

Auzian lotura estua duten eragileen agerpena ia erabatekoa izan zen, joan zen astelehenean: udal ordezkariak, ikastetxeetako arduradunak eta kirol elkarteetako kideak hurbildu ziren Andoaingo Udalak deituriko bilkurara

Xabier Lasa ANDOAIN

Joan zen apirilean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Gipuzkoako Eskola Kirolari buruzko epaia berehala betearazteko agindua eman zuen, zeinaren bidez, hamahiru urtetik beherakoek ez dute zertan parte hartu Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko ekimenean. Jakina denez, Gipuzkoako kirol anitzeko programa kirol minoritarioak babestera eta eskola-umeei diziplina desberdinak probatzeko aukera ematera bideratuta dago, kirol jarduera jakin bat aukeratu aurretik.

Aldundiak berretsi egin du Gipuzkoako kirol hastapenean parte hartzen duten eragileekin lanean jarraitzeko konpromisoa, lurraldeko haur guztien kirol eskubidea bermatzeko. Andoainen jokabide bera izan dute eta, ikasturtea amaitu berritan, jardueran parte-hartze zuzena duten eragile guztiek agerraldia egin dute.

Agerraldi jendetsua

Auzian lotura estua duten eragileen agerpena ia erabatekoa izan zen: udal ordezkariak, ikastetxeetako arduradunak eta kirol elkarteetako kideak hurbildu ziren Andoaingo Udalak deituriko bilkurara. Ekitaldia Allurralde kiroldegiko Ixiar Olano kirol teknikariak gidatu zuen. Andoni Alvarez alkateak hurbil-

du zirenei harrera egin eta bilkuraren zergatia azaldu ostean, taldeko argazkia atera zuten Goikoplazan. Udal ordezkari gehiago hurbildu ziren ekitaldira: Aritz Alkain (PSE-EE), Txitxu Ruiz (EAJ-PNV) eta Pepe Iparagirre (Elkarrekin-Podemos).

Eskola Kirola programan parte hartzen duten hiru ikastetxeetako ordezkariak ere bertan izan

Multikirolaren aldeko adierazpena

“Orain arte, kirol elkarte bateko eskola batean parte hartu ahal izateko ezinbestekoa zen Multikirolaren eskaintzan parte hartzea, baina, orain, derrigortasun hori bertan behera geratu da eta Eskola Kirolaren programak egoera berria sortu du. Horren aurrean, ikastetxeek, kirol elkarteek eta Andoaingo Udalak herritarrei jakinarazi nahi diete irmo babesten dutela ikastetxeetan eskaintzen den kirolaniztasun eredua.

Lerrokatze hori eragin duten arrazoi nagusiak honako hauek dira:.

- Multikirolari esker, haurrek, beren trebetasun handiak edo txikiak, edozein direla ere, askotariko mugimen-trebetasunak lor ditzakete, gaitasunak ikas ditzakete, balio positiboak sustatu, mugimenduan zoriontsu jolastu eta hazi, eta bizitza fisiko aktiboa eta osasungarria izan dezakete..
- Ebidentzia zientifikoak frogatu du kirol aniztasunak saihestu egiten dituela espezializazio goiztiarrari lotutako arazoak, batez ere kirola egiteari goizago uzten diotenen kopuruak eta lesio-arritsu handiagoa.
- Multikirola hamarkadetan sustatu ondoren, monitorizatu diren emaitzen analisiak indartu eta bermatu egiten ditu hastapeneko kirol anitzen praktika, eliteko kirolari dagokionez:
 - 15 eta 40 urte bitartean, 100.000 biztanleko, goi-mailakotzat aitortutako kirolarien ranking nazionaleko lehen sailkatua da Gipuzkoa (EJ2024).
 - EAEko etorkizuneko kirolarien %70 gipuzkoarrak dira.
 - Gipuzkoak 2,3 atleta ematen dizkie Olinpiar Jokoei 100.000 biztanleko, eta estatu osoak 0,76 (GFA2025). Lerro hauen bidez, dei egiten zaie familiei beren seme-alabak Multikirola egitarauan orain arte bezala parte hartzera motiba ditzaten”.

ziren: Ondarreta Herri Eskola-ko Maite Petrikorena zuzendaria eta Zuhaitz Elejalde gorputz hezkuntzako irakaslea, La Salle Berrozpe ikastetxeko David Urtasun zuzendaria eta Lorena Vicente kirol koordinatzailea eta Aita Larramendi ikastolako Aitor Iriondo zuzendaria eta Ander Setien kirol koordinatzailea.

Kirol taldeei dagokionez, berriz, ordezkariak zabala hurbildu zen udaletxera: Euskalduna futbol klubeko Saioa Telletxea, Andoaingo Txirrindulari Esko-

leko Aitor Amutxastegi, Ganbara Saskibaloio taldeko Iñaki Gonzalo, Oskarbi Erritmika Klubeko Kristina Galdos eta Maialen Arano, Kabutoken Kenpo Kaiko Txaro Sanchez, Leizaran eskubaloiko Eva Gutierrez eta Zumeatarra Atletismo Elkarteko Jon Imaz. Agerraldira hurbildu ez baziren ere, ekimenarekin bat etorri dira Gazteleku Pilota Eskola eta Ontza kirol elkarteak.

Eskola Kirola Andoaingo ehunka haurren topalekua da, ibilbide luzea egin duena.





Infantil mailako Leizaran McDonalds taldea. Jokalariak: Aiala Idigoras Gomez, Alaia Cincunegui Cano, Clara Urtasun Vicente, Elene Paz Sanchez, Eukene Beloki Aramendi, Intza Matute Rebollo, Ixiar Irulegi Abrego, Izar Sukunza Echeveste, Libe Azpiroz Delgado, Libe Arruti Etxabe, Malen Lizarribar Pestaña, Nahia Sanchez Ascunce, Paula Mediero Pastoriza, Sara Portuburu Liceaga eta Uxue Fernandez Azpiroz. Entrenatzaileak: Gorka Matute Arroyo eta Iker Beloki Altuna. LEIZARAN

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ostiral arratsaldea, lagunarteko partida jokatzeko ari dira Allurraldeko kantxan. Batetik, infantil mailako mutikoak. Bestetik, bigarren urteko neskak. Pare pare aritu dira partida osoan eta, azkenerako, neskak gailendu dira. Arratsaldea taldeko argazkiak ateratzeko baliatu dute. Lan saioa amaituta, Gorka Matute entrenatzaileak denboraldi honetan bizitakoa adierazi dio Aiurri astekariari. **Denboraldia amaitu duzue eta lortu duzuen sari kopurua oparoa da. Aurreikusi zitekeen hori, denboraldiaren hasieran?**

Irailan, ez. Behin Gipuzkoako txapelketako lehen fasea amaituta, maila onean ari ginen eta multzoan lehen postuetan geunden. Gure helburua azken fase-iristearen zen, horixe zen neskekin hitz egindakoa. Hori lortzea esperientzia polita litzatekeela adierazi genien, maila handiko taldeekin lehiatzeko aukera izango genukeelako. Gabonetan Andoain Cup txapelketa jokatu genuen eta hor inflexio puntu bat izan zen. Irabaztea lortu genuen eta bizitakoa oso esperientzia polita izan zen.

Denboraldia, gogoangarria

Infantil mailako Leizaran McDonalds taldearentzat denboraldia gogoangarria izan da. Giro onean lorpen ugari izan dituzte, eta jarraipena emateko gogoz daude: Ekainaren 25ean Kataluniarantz doaz, Granollers Cup txapelketan parte hartuz.

Gauza politak egin zitezkeela jabetu ginen, orduan. Eta hortik aurrera taldea hobetzen aritu da eta, azkenerako, sekulako emaitzak lortu ditugu. **Kalitatea behar da hori guztia lortzeko, baina lehiatzeko ere jakin behar da. Andoain Cup herrian bertan jokatu zuten eta adore handia erakutsi zuten.**

Bi urte hauetan lehiatzeko ikasi dute, bereziki, denboraldi honetan. Teknikoki, taktikoki eta fisikoki hobetzea zen denboraldi honetarako helburua. Lehiari dagokionez, jauzi bat eman



Gorka Matute. AIURRI

dugu talde lehiakorren aurka jokatu eta hori ikasketaren prozesu handia izan da jokalarientzat. Andoain Cup txapelketan, herriaren aurrean eta jende askoren aurrean, emaitza oso onak lortu zituzten eta hori esperientzia ona izan zen denboraldiaren bigarren txanparako.

Meritua jokariengand jarritz, ikasketako gogo bizia dutela azpimarratu beharko litzateke.

Iaz ekin genion eta bi urte daramate eskubaloian murgilduta. Prozesu bat da eta beraien esku dago taldearen garapena. Gogoz

Palmaresa, sekulakoa

2024-2025 DENBORALDIA

Txapelkunak:

Andoain Cup, Gipuzkoako Txapelketa, Gipuzkoako Kopa.

Txapelkun-ordeak:

Euskadiko Txapelketa, Agredako Txapelketa.

4. postua:

Maliañon ospatutako Estatuko Sektorean.

Granollers Cup:

Denboraldia borobiltzeko, ekainak 25-30 bitartean Granollers Cup txapelketan parte hartuko dute. Andoain Cup txapelketa irabazteagatik lortutako saria da.

etortzen badira eta inplikatzeko badira nabarmen hobetuko dute. **Leizaran eskubaloia taldea, bereziki, emakumezkoen kirol jardueran sustatzen lan handia egiten ari da.** Halaxe da, bai. Ibilbide bat osatzen ari da eta, historikoki, Leizaran emakumezkoen kirol jardueran oso errotuta dago. Azken urteotan, bereziki, neska asko hurbildu dira. Balio asko jasotzen dituzte klubean: lehiatzen dira, talde-lana egiten dute... eta gure kasuan euskaraz bizitzeko hautua hartu genuen. **Gipuzkoan, Euskal Herrian eta Espainian txapelketetan aritu zarete, eta hori oso gutxiaren esku dago. Nola bizi dute jokalariek esperientzia hori?**

Ezustekoa izan da, sorpresa atsegina eurentzat eta denontzat. Une ahaztezin ugari bizi izan ditugu. Gipuzkoako azken fase-iritsita jakin genuen estatu mailako iparraldeko sektorean aritzeko aukera izango genuela. Eta Gipuzkoako txapelketa irabazi berriak jakin genuen Euskadiko jokatu genuela handik astebetera. Hitzordu ugari pilatu dira eta emaitza oso onak lortu dituzte. Eta, bereziki, bizitza guztirako gordeko dituzten esperientziak. Jokalariei esaten diegu argazkiak egin ditzatela eta unea bizi dezatela, denboraldia ahaztezina izango baita. Eta, ziurrenik, errepikaezina.

Nolako entrenatzailea zara? Jokatzen uzten diezu etdo etengabe gainean dagoen horietakoa zara?

Normalean haien jokoaren eta mugimenduen gainean egoten naiz baina, bereziki, motibazioz beterik jarrai dezaten. Eskubaloian nahiko era askean jokatuteke eta defentsako edo eraso-soko jokaldi asko erabakitzeke aukera dute. Jokoa antolatzea, distantziak mantentzea, posizioei eustea... Gure aholkuak alor horietara mugatzen dira.

Jokalariek elkarrekin jarraituko al dute? Kadete mailara igota, jauzi berria emango dute.

Beste maila batean ariko dira eta adinean zaharragoak diren neskekin nahastuko dira. 25-26 neska izango dira kadete mailan, eta bi taldetan banatuko dira. Mailaren arabera, adinaren arabera... erabakiak hartzeko unea da, behin denboraldia amaituta.

Klubarentzat oso ona da aurten bizitakoa, gerora begira oinarri sendoa dagoela antzematen baita.

Oso polita izan da lehiaketa horietan parte hartzea eta harmailan haurrak eta gaztetxoak ikustea. Erakusleio bat da, entrenamenduen ondorioz noraino iritsi gaitezkeen erakutsi dugulako. Neska hauek bi urte darabate jokatzeko, Eskola Kirolatik datoz eta aurrez ez dira eskubaloia eskolatik izan. Bi urteko epealdian Gipuzkoako txapelketa izatera iritsi dira. Jokalariek erakutsi duten gogoaren eta jarraitzaileen onorio izan da eta hori aipatzea garrantzitsua da.

"LEIZARAN TALDEA EMAKUMEZKOEN KIROL JARDUERAN OSO ERROTUTA DAGO"

GORKA MATUTE, ENTRENATZAILEA

"Titulu asko lortu ditugu; ez genuen horrelakorik espero"

ALAIA ZINKUNEGI CANO TALDEKO ATEZAINA



AIURRI

Zer moduzko denboraldia izan da zuretzat?

Oso ona. Asko disfrutatu dugu. Zorionez, titulu asko lortu ditugu eta, egia esan, ez genuen horrelakorik espero. Irabaziz joan ginen, geroz eta partida gehiagotan, eta liga hasieran ez genuen honaino iritsiko ginatekeenik espero.

Nola bizi duzu eskubaloia? Argi zenuen zure gogoko kirola zela?

Duela hiru urte baloiari beldurra nion. Eskola Kirola izena ematea erabaki nuen horrexegatik, baloiari beldurra kentzeko asmoarekin. Hasi eta astebetera aitari esan nion: "Aita, atezaina izango naiz. Argi daukat". Aitak harriduraz begiratzen ninduen, baloiari nion beldurraren jakitun

baitzen. Une hartan argi izan nuen eta orain oso pozik nago.

Eskubaloian ez da batere erraza atezaina izatea eta baloi bizi asko jasotzen dira gorputzean.

laz, zoritxarrez, lesioa izan nuen eta hiru hilabetez geldirik egon behar izan nuen. Orain ondo nago eta, bai, arrisku egoerak sortzen dira atepean. **Zer moduzko giroa duzue taldean?**

Oso ona, elkarren arteko harremana oso ona da. Ederki konpontzen gara. Taldeko gehienak, gainera, lagun talde berekoak gara. Elkar ondo ulertzen dugu eta beti gaude elkarri animatzeko prest.

lazio irailean espero zenuen honaino iristea?

Ez. Uste nuen iazko denboraldia errepikatuko genukeela. Akaso, liga irabaztea, baina hau guztia ez.

Andoainen lagunen eta etxekeoen animoak jaso dituzue. Presio hori ondo eraman duzue?

Andoain Cup txapelketan, lehen partidaren hasita, galduko genuen beldur ginen. Eta, azkeneko, finaleraino iritsi ginen. Oso urduri geunden baina partida ona egin eta irabaztea lortu genuen. Gozatu genuen.

Zer da zuretzat eskubaloia?

Orain arte bertan niretzat dena da. Lagunekin elkarbanatzen dudana kirola da, familiarekin ere bai. Bizitza ematen dit.



Koldo Ponce eta Ibon Altuna Andoaingo ordezkariak, finalari ekin aurretik. MATEO PONCE

Gipuzkoako Herriartekoa irabazi du Andoain herriak

Andoaingo palistek Erretera gainditu zuten Gipuzkoako Herriarteko txapelketako finalean

Erredakzioa ANDOAIN

Azken urteotan Gipuzkoako onenen artean daude andoaindarrak eta aurreko asteburuan erakustaldi berria eman zuten. Pala motzean eta larruzko paletan Gipuzkoako Herriartekoa irabazi dute. Pala motzean, Koldo Poncek eta Ibon Altunak 40-37 irabazi zuten neurketa, eta larruzko paletan, berriz, Ibai Iradi eta Iñaki Lopez de Munain 35-26 nagusitu ziren. Ordizian jokatu zen finala, Erreteriarren aurka. Andoaingo pilotariek makina bat herrikide izan zituzten harmailetan animoak ematen, eta guztiek ere ederki asko ospatu zuten Gipuzkoa mailako txapela.

Gomazko paletan, finalaurrekoa jokatu dute

Palakoa ez da Gaztelekuko kirolariek Gipuzkoako Herriarteko txapelketetan lortu duten

balentria bakarra izan. Ostira-lean, gomazko paletan finalaurrekoa jokatzeko txartela lortu zuten, Donostiaren aurkako norgehiagoka gainditu ostean. Dena esatera, hiru partidak galdu zituzten, baina tantoak zenbatuta, Andoainek egin du aurrera. Lorpene Arraten jokaturako joaneko neurketetan lortutako abantailaren ondorioz iritsi da.

Donostian, itzulerako partidatan, honako emaitzak lortu zituzten andoaindarrak: banaka, frontoi osoan, Josu Etxeberriak 17-20; binaka, frontoi osoan, Xabat Amilibiak eta Jon Jauregik, 5-20; eta, zazpi barruan, Mikel Arberasek 7-20.

Finalaurrekoa Debaren aurka jokatu dute, ostegun honetan, Arrate pilotalekuan. Iluntzeko 20:30ean hasiko dira partidak. Eta, astebate beranduago, itzulikoa jokatu da Deban.

Finalera iritsi da Sagardoaren Txapelketa

Urriza-Larrañaga eta Aldabe-Barrenetxea IV bikoteen artean jokatu da, hurrengo astelehenean

Erredakzioa URNIETA

Urriza eta Larrañaga finalisten zain ziren eta dagoeneko argitu da. Izan ere, Kemen Aldabek eta Endika Barrenetxeak Josetxo Ezkurra eta Aritz Juanenea menderatu zituzten, bi jokotan (14-15

eta 7-15). Horrenbestez, Sagardoaren Txapelketako finala bi bikote horien artean jokatu da Galarretan. Ikusle asko espero da ekainaren 16an ez baita ahaztu behar Urrizaren azken partida ofiziala izango dela.

Barrenetxearen sarea

Aurreko astelehenean jokatu zen finalaurrekoan bi zati oso desberdin izan ziren. Lehenengo jokoan, bi bikoteak parez pare aritu ziren, eta Aldabek eta Barrenetxea IV.ak tanto bakar batez eskuratu zuten puntua. Bigarren jokoan, ordea, Ezkurra II.ak eta Juaneneak ez zuten aukerarik izan. Bigarren joko horretan, gakoetako bat izan zen Barrenetxea IV.aren sarea; atzelari hernaniarrak sei tanto egin zituen.



Urnietako
udala



Euskadiko eta Finlandiako selekzioetako jokalariek, partidari ekin aurretik. AIURRI

Emozioz beteriko partida

Basque Country International Cup txapelketaren edizio berria antolatu du Euskal Selekzioak eta, aurtan, Finlandia izan da gonbidatua. Bi partida jokatu zituzten aurreko asteburuan, Zarautzen eta Andoaingen

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Igande arratsaldean, bazkalostean, herrikide askok Allurraldeko bidea hartu zuten Euskadiren eta Finlandiaren arteko partida ikusteko gogoz. Partidari ekin aurretik bi taldeen aurkezpena egin zuten eta guztiek ere txalo zaparrada jaso zuten. Partida hasi eta berehala harmailak zaletuz bete ziren eta, dena esatera, ez dute arratsalde hura berehalakoan ahaztuko. Maila beretsuko bi talde aritu baitziren aurrez aurre. Lehen zatian Finlandiak hartu zuen abantaila baina Euskadikoek jakin zuten eusten. Ez zeuden hain azkar etsitzeko prest. Amaiera aldera iritsita, gol bakoitzak urrea balioa zuen eta, noski, Euskadiko selekzioak sartutako gol bakoitza emozio handiz ospatu zen. Berintasuna nagusitu zen amaiera aldera.

Azken segunduetara 21ekoa erekin iritsi ziren, eta une erabakior horietan baloia Finlandiak zuen. Baina erasoan huts egin eta baloia Euskadik hartu zuen. Partidaren amaiera iragartzen zuen klaxona jo aurretik, Euskadiko jokalaria batek alderik alde bota zuen baloia eta hustik zegoen Finlandiako atepean sartu zen. Oihuka eta txaloka ospatu zuten gola eta garaipena Allurraldera hurbildu zirenek. Aiurri.eus gunean, bideoan dago jasota une hori eta, zinez, ikusgarria da.

Leizaran eskubaloit taldearen antolaketa bikaina

Euskal jokalariek nazioarteko selekzioen aurka jokatzeko txapelketa Leizaran eskubaloit taldearen eta Zarautz Eskubaloia klubaren lankidetzari esker egin ahal izan da. Eta, nola ez, hona-

ko babesle hauena: Andoaingo eta Zarauzko udalak, Eusko Jaurlaritza, Basque Team, EKFB eta Federazioaren enpresa laguntzaileak.

Federazioak hainbat euskal jokalaria deitu zituen bi partidatan aritzeko. Zarautzen Euskadi 32-22 gailendu zen eta partida hartan protagonismo berezia izan zuten Zarautz aldeko jokalariek. Andoaingoan Bidasoako eta Bizkaiko taldeen partaidetza handiagoa izan zen. Emaita ere aldekoa izan zen euskaldunentzat, baina tarte txikiagoarekin: 22-21. Ander Egaña andoaindarra izan zen protagonista.

Partida hauek antolatzeko lan handia dago atzetik eta, beste behin ere, Leizaran eskubaloit taldeak boluntario askoren laguntza izan zuen. Pozik egon daitezke, beraz, Euskadiko federazioko arduradunak.

Ikusmin handia harmailatan



Jendetza elkartu zen Allurralden, igande arratsaldean. AIURRI

Ehunka lagun Deigarria izan zen Andoaingo kiroldegira hurbildu zen jendetza. Bazkalostea bazen ere, zaletu ugari hurbildu ziren Euskal Selekzioa ikustera.



Emozioz beteriko partida izan zen. AIURRI

Antolaketa lana Leizaran eskubaloit taldeak boluntario ugari jarri zituen lanean partidaren antolaketa ona izan zedin. Izan ere, horrelako partidak egin ahal izateko laguntza asko behar da.



Ander Egaña 2-2koa sartu zuen unea. Baloia atepEAN sartzen ageri da. 7 zenbakiarekin aritu zen Euskal Selektzioan. AIURRI



Ander Egaña Gaston andoaindarra Tolosa CF taldean ari da, Nazional 1 mailan. TOLOSA CF

"Ikusteko partida ona izan zen, bereziki, amaiera"

ANDER EGAÑA GASTON EUSKAL SELEKZIOKO JOKALARIA

Andoaindarrak Leizaran eskubaloiko harrobian eman zituen lehen pausoak. Tolosa CFko jokalaria da eta, egun, Espainia mailako Nacional 1 mailan jokatzen ari da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskadi-Finlandia arteko partidaren protagonista izan zinen. Andoaindarra zaitugu eta herrikide askoren aurrean aritu zinen. Zein sentsazio izan zenituen igandean?

Hiru denboraldi dira eskubaloian aritzeko Andoaingo kantxa zapaldu ez dudala eta nabaritu nuen herritarren berotasuna, batez ere, Andoaingoa naizelako eta Leizaran eskubaloia taldean lehen pausoak eman nituelako. Behin partida hasita, ez nion garrantzia eman nahi izan horri.

Gurean, jokalariai taldeari zor gatzazkio.

Hasierakoan atera zinen eta garrantzi handiko golak sartu zenituen, adibidez, 18nako berdinketa eman zuena... Gustura jokoarekin?

Kontuan izan prestaketa-saio berezirik egin gabe jokatu genuela. Hainbat egoera tarteko, ez dugu lanketa egiteko tarterik izan eta, akaso, balioan jarri behar da aurrekoan egin genuena. Nik golak egiten ditut baina jokalaria bakoitzak bere egitekoak ditu.

Denboraldia amaituta, deialdiak ilusio berezia sortu du zugar?

Ilusioa beti gailentzen da Euskal Selektzioaren deia jaso berritan. Akaso, denboraldia amaituta, erreta edo nekatuta zaude eta joko aldetik ez zaude unerik gozotenean baina deialdian sartze hutsa pizgarria dela ezin uka.

Partida eta gero zer nolako erantzuna jaso zenuen gertuko aldetik?

Oso partida lehiatua izan zen, bereziki, amaiera. Aurretik izan ziren finlandiarrak, baina par-

tidaren azken aldera izandako jokaldien ondorioz markagailua berdindu eta irabazi ahal izan genuen. Ikusteko partida ona izan zen, bereziki, amaiera.

Zer da eskubaloia zuretzat?

Zaletasun gehiago ditut, baina eskubaloian ematen dut denbora gehien. Nire kirol-jarduera nagusia da eta eskubaloia eskertzen pertsona asko ezagutu eta esperientzia ugari bizi izan ditut.

Nacional 1 mailan ari zara Tolosa CF taldean. Nola gogoratzen dituzu zure urratsak Leizaran taldean?

Gure adineko hainbat lagun elkartzu ginen Leizaran. Saiatu ginen ahalik eta ondoen egiten eta eskubaloia bueltan harreman ona egin dugu.

Euskal Ligan aritu da, lehen aldiz, Leizaran Ernio taldea. Pentsatzen dut ezagunak izango dituzula Leizaran Ernio taldean.

Bai, noski. Joan nintzenetik garapena izan dute eta igoera lortu zutenean zoriondu nituen. Meritua denena da: jokalaria, entrentzaileena eta, nola ez, klubarena. Motibazio handia da maila hobean aritzeko aukera izatea.

Zuk jokatzen duzun mailan alde handia dago? Zertan da nabaritzen da gehien, abiaduran?

Jokoa eta fisikoki alde handia dago. Erritmoa askoz azkarragoa da, alde handia dago maila batean edo bestean aritu. Estatu mailako klubaren aurka aritzen gara eta exigentzia horri erantzun behar zaio maila txukuna eman ahal izateko.

Zeintzuk dira zure doaiak eta zertan uste duzu hobetu behar duzula?

Nire doia abiadura da. Bi anaia ere aritu dira eskubaloian eta hirurak azkarrak gara; hori izan da gure indargunea. Defentsan hainbat egoerari aurrea hartzen jakin behar da eta alor horretan hobetu beharra dudala uste dut.

Zer moduzko esperientzia izaten ari da Tolosa CFkoa?

Oso ona, guztiz positiboa. Talde modura gauza onak besterik ez ditut ikusten. Harrera bikaina egin didate eta hori kantxan eta kantxatik kanpo antzematen da. Hirugarren urtea dut eta bertako bat gehiago naiz. Jokuari dagokionez, hazkunde handia antzematen dut eta oraindik ere jarraitzeko gogoz nago.

Bidaian denbora bat ematen duzue, elkarbizitza funtsezkoa da giro onari eusteko.

Bolada txarrak talde guztiek izaten dituzte eta, horrelakoetan, giro onari eustea funtsezkoa da. Hartara, kirol mailan gauzak ondo ez doazenean jokalarien arteko giro ona sustatzea garrantzi handikoa izaten da. Errazagoa da dinamika negatiboak aldaraztea tadekideen arteko giroa ona denean.

Tolosa CFn jarraituko duzu?

Bai, eta espero dut denboraldi batzuetan bertan izatea. Atxikimendua badut klubarekiko, oso ondo hartu nautelako. Ez bada maila handiago batetik deitzen didatela, interesgarria litzateke Tolosa CFn nire ibilbideari jarraitzea ematea.



Koldo Velasco urnietarra bigarren sailkatu zen, iaz. AIURRI

Iristear da Bertxin Xtrem lasterketaren bigarren edizioa

Leitzarango 500 eta 1000 eskilarak igotzeko proba datorren ekainaren 21ean da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Bigarren edizio honetarako bi aldaketa nabarmen iragarri dituzte Osin Trail kirol taldeko antolatzaileek. Lehena data da: irailetik ekainera aurreratu dute proba. Eta bigarren aldaketak ordutegiarekin du zerikusia: iaz bazkalostean izan zen eta, aurtun, goizez izango da.

Bertxin Xtrem 500 eta 1.000 eskaileren proba konbinatua da, bi igoeren denborak zenbatzen baitira sailkapen orokorra osatzeko. Iazkoan ikusi ahal izan zenez, lasterkariak minutu gutxiago denbora-tartean esfortzu handia egin behar izaten dute.

Erraza dirudi baina estrategia oso garrantzitsua da. Iaz, esaterako, grinak baldintzatuta, azkar batean ekin zioten igoerari. Eta, eskilaratan gora aurrera egin ahala, gorputza bihurritu egiten zuten, besoak jaitsiz eta katuka izoz. Eta, ezin bestela, arnases-tuka.

2024ko edizioan marka onenak Maria Ordoñez (8:20 minutu) iruñarrak eta Aner Arozena zumarragarriak (6:36 minutu) ezarri zituzten.

Lasterketan 18 urtez gorakoek parte har dezakete. Federatuek zein federatu gabeek parte hartu ahalko dute eta, hori bai, antolakuntzak lasterkari guztiei mediku errekonozimendua eta esfortzu-proba bat egitea aholkatu die. Gehienez ere 120 partaide lehiatzeko aukera eman dute antolatzaileek.

Ikusleen ikuspegitik bertatik bertara ikusteko proba ikusga-

Lasterketaren xehetasunak

Bertxin Xtreme II Ekainak 21, larunbata

Probak:

- 10:00 500 eskilarak.
- 11:30 1000 eskilarak.

Dortsalen banaketa:

08:30 Otietan, Bisitarien etxean.

Sariak:

1. Emakumezkoa: 200 euro + txapela.
2. Emakumezkoa: 100 euro.
3. Emakumezkoa: 50 euro.
1. Gizonezkoa: 200 euro + txapela.
2. Gizonezkoa: 100 euro.
3. Gizonezkoa: 50 euro.

Andoaingo lehen sailkatuek sari berezia jasoko dute.

Arauak:

- Eskailera nahi bezela igo ahalko dira (oinez, korrika,...)
- Barandari eustea baimenduta dago.
- Makilak ezin dira erabili.
- Beste korrikalari baten aurreratzea erraztea derrigorrezkoa da.
- Korrikalariak 30 segunduro aterako dira.

ria da, Leitzarango haranaren sarbidean egiten dena. Hobe, aukeran, oinez hurbiltzea. Lasterkariak esfortzu betean ikusteko proba ikusgarria da.

Asier Rajadoren balentria, Leitzan

Asier Rajado Barberenak eta Oihana Azkorbebeitia Urizarrek irabazi zuten Euskal Herria Mendi Erronka, 67 kilometroko lasterketa. Egundokoa egin zuen andoaindarrak, zazpi ordu azpiko denboran osatu baitzuen ibilbide osoa

ERRAN.EUS

Ttiti Ttapa / TOKIKOM

Ekainaren 7an jokatu zuten Euskal Herria Mendi Erronkaren hamaikagarren edizioa. Goizeko zazpi eta erdietarako itxura ederra hartua zuen Leitzako plazak: lasterkariak nerbioak dantzan, boluntarioak batean eta bestean eta hainbat herritar irteera puntuan zain.

Zortzietan puntuan atera ziren Leitzako plazatik Euskal Herria Mendi Erronkako parte hartzaileak. Aurtengoan nabarmena izan da azken orduan lasterketan parte ez hartzea erabaki dutenen kopurua. 67 kilometroko erronka osatzeko asmoa zuten 354 lasterkari atera ziren irteera puntutik: 327 gizonezko eta 27 emakume eta erreleboka, lasterketaren lehenbiziko zatia osatu behar zuten 25 lasterkari.

Euskal Herria Mendi Erronkan parte hartu zuten 50 bikotetatik 44k lortu zuten helmugara iristea. Ultra lasterketan, 296 izan ziren hamahiru ordu baino lehen helmugara ailegatu zirenak: 273 gizonezko eta 23 emakumezko. Goizaldeko langarra eskertu zuten lasterkariak eta eguerditik aurrera eguzkiak gogor jota, nahi baino gehiago sufritu behar izan zuten Lekuberritik Iriberrera zatian. Ikusleen animorik ez zuten falta izan ibilbide osoan zehar eta jendetza bildu zen Albi, Putzuzar eta Lekunberrin.

Gizonezkoetan, Asier Rajado Barberena andoaindarra izan zen bizkorrena (6.52.05). Irumugarrietako igoera erabakiorra izan zen, kilometro bertikalean 10 minutuko aldea atera eta lasterketa osoan eutsi zion postutako errentari. Bigarren posturako lehian gogor aritu zen Jon Ander Zabaleta leitzararra, Gaintzatik Lekunberrira arteko tartean eutsi zion postuari, baina azkenean erretiratu egin behar izan zuen. Podiuma Oier Elorza



Asier Rajado helmugara iritsi berritan. EHMENDIERRONKA

Abaunzek (7.01.07) eta Gaizka Sotil Etxabek (7.05.36) osatu zuten.

Emakumezkoetan Oihana Azkorbebeitia Urizar izan zen garaile (8.05.28). Lehia polita izan zuen Itxaro Zabaleta Telleria leitzarrarekin. Leitzararra joan zen aurretik Irumugarrietako gainera iritsi arte. Han hartu zion aurrea Azkorbebeitiak. Leitzarrak hasieran distantziei eustea lortu bazuen ere, Iriberrereko igoeran pausoa azkartu zuen bizkaitarrak eta pixkanaka tartea handituz, bederatzi minutuko tartea atera zion helmugan. Zabaleta izan zen bigarren (8.14.29) eta Uxue Fraile Azpeitia (8.23.48) hirugarren.

Erreleboka, Miren Bastida eta Beñat Ibañez izan ziren bizko-



Azkorbebeitia. ENERITZ IRAOLA

rrenak (7.07.03) eta Naiara Elolak eta Iosu Elolak (7.11.01) eta Vanesa Arbelaitez eta Xabi Ondarok (7.41.30) osatu zuten podiuma.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETAK

ANDOAIN Axeri-Dantza
Erakusketa zabalik dago hilabete amaiera bitarte.
Azken eguna: Ekainak 27. Bastero Kulturgunea.

LEHIAKETA

URNIETA Kartel lehiaketa
Sanmielak iragartzeko kartel lehiaketa martxan dago. Jai Batzordean hautatuko da kartela eta irabazleak 500 euroko saria eramango du. Oinarriak Urnieta.eus webgunean kontsulta daitezke.
Epea: Ekainak 27.

KONTZERTUA

ANDOAIN Udal Musika Eskola
Ikasturte amaierako kontzertua, eskolako ikasleen eskutik.
18:00, Bastero Kulturgunea. Ekainak 19, osteguna.

DANTZA

ANDOAIN Axeri Dantza, bazkaria
Axeriek, axeri zaleekin eta herritarrekin partekatu nahi dute dantza osteko bazkaria. 14:30ean hasiko da otordua, La Salle ikastetxeko jolastoki estalian. Bazkaria San Juan egunez egingo da, ekainaren 24an
Txartelak salgai, Lanbroan eta Gaztelutxon.



Egape Dantza Taldea. AIURRI

URNIETA "Hitzak dantzan" ikuskizuna, EDTren eskutik

Bertsoak eta dantzak bat egingo dute, Egape Dantza Taldeak ekainaren 15ean oholtzaratuko duen emanaldian. Hitza eta mugimendua uztartuko dituzte oholtzara aterako diren 49 dantzariak, ikasturte osoan landutako hamasei koreografiaren bidez. Saroben egingo dute hitzordua arratsaldeko 19:30ean. Lehenago, ordea, zer gozatua ere izango da, helduen taldeak emanaldia egingo baitu, 18:30ean.
Ekainak 15, igandea. Sarobe antzokia. 18:30.

ANDOAIN Axeri-Dantza, entseguak
Axeri Dantzari izateko gogoz dabilzan herritarri aurtengo entsegu egunak zehaztu dituzte. Horiek ekainaren 16 eta 18an izango dira.
19:00, Ondarreta Herri Eskola.

eskainiko du. Euriarekin Zumea atzealdeko ludoteka berrian.
18:00, Zumea plazan. Ekainak 13, ostirala.

DANBORRADA

ANDOAIN Agustin Leiza elkartea
San Juan jaiei begira, entseguei ekin diete. Entsegua ekainaren 17an. Emanaldia, ohi bezala, ekainaren 23an izaten da.
19:00, Ondarreta Herri Eskola.

MAGIA

ANDOAIN Izeba Felisaren irratia
Eneko Gutierrezek magia eta umorez beteriko ikuskizuna

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN Zorionak Elisabet
Ekainaren 28an urteak beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu potoloak. Etzekoak.



ANDOAIN Ane Garmendia Albisu
Ekainaren 17an 6 urte beteko dituzu. Zorionak etzekoen partetik! Muxu asko! Maite zaitugu

www.aiurri.eus
Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.
diseinua@aiurri.eus
Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Arantzibia 4-5, behea. Andoain
Telefono zenbakia: 943 300 732.

ZINEMA



ANDOAIN BASTERO
Baltimore
Ekainak 14, larunbata. 19:30.
Ekainak 15, igandea. 19:30.
Ekainak 16, astl. 17:00, 19:30.

SINOPSISIA

Baltimore
Zuzendaria: Christine Molloy, Joe Lawlor. **Aktoreak:** Imogen Poots, Tom Vaughan-Lawlor, Lewis Brophy, Jack Mullarkey... **Herrialdea:** Irlanda. **Urtea:** 2023. **Hizkuntza:** Gaztelaniaz **Generoa:** Akzioa. **Iraupena:** 98 m.

IRAre garaiko filma

Rose Dugdale gaztearen benetako istorioa. Jaso zuen heziketa aristokratiko ingelesaren aurka altxatu zen, 1974an IRAn boluntario gisa murgilduz. 1972ko Ipar Irlandako Igande Odoltsuaren ankerkerien ondoren erradikalizatu zen.



Galarretara, pilota eskolarekin

Denboraldiari amaiera emateko, UKEko pilota-eskolako haurrek, Oriamendiren gonbidapenez, Hernaniko Galarretara egin zuten irteera. Sagardoaren Txapelketako partidak ikusi zituzten, eta behin norgehiagokak amaituta, xexto bana eman zitzaizen umeei eta erremontean aritu ziren.





Urrietako Hamaikakoa, nahiz eta Urnietan hainbat alorretan hamaikako gehiago osatu diren. AIURRI

Eragiten segi beharra dago

“Izugarria izan da ariketak sortu duen mugimendua”. Hala adierazi zuen Euskaraldiaren Koordinazio Mahaiak maiatzaren 15etik 25era milaka euskal herritarrek eginiko ahalegin kolektiboak izandako eraginaz, ariketa amaitu berritan

Erredakzioa BETERRI-BURUNTZA

Euskararen erabilera hartu zen ahotan Euskaraldiaren sustatzaileen esanetan, “herritar askok eta askok euren hizkuntza ohituren inguruan” hausnartu zuten ahobizi edo belarriprest izatea erabakitzeak uneen eta lehen euskaraz egiten ez ziren hainbat elkarrizketa euskaldundu dira.

Euskaraldiaren Koordinazio Mahaiak balorazio sakonago eta zehatzagoa egin nahi du. Horretarako, askotariko eragileekin hartuemanetan jartzeko asmoa dute. Garrantzitsutzat jotzen dute ahobizi eta belarriprest guztien bizipenak jasotzea. Horretarako, euskaraldia.eus/bizipenak/ atarian bizitakoa partekatzea deitu dute. Horrez gain, bosgarren edizioa “are hobeagoa izan dadin”, entitate, eragile eta herri batzordeekin

sakondu nahi dute hamaika egunotako ariketa kolektiboak izandako eraginaz.

Aintzakotzat hartzekoa izango da zalantzarik gabe, Buruntzaldek udalerrietan jazotakoa ere. Izan ere, eskualde honek ere bat egin du Euskaraldiarekin. Hiru udalerrietan bizi izan dutena jaso ahal izan dugu lerrootan; Astigarragan, Hernanin eta Usurbilen bizitakoa.

Lankidetzaren indartzea

1.700 izen-emate pasatxo izan dituzte Hernanin, Dobera Euskara Elkarteko ordezkari batek berri eman digunez. Gehienak, ahobizi gisa bat egin zuten Euskaraldiarekin; ia 1.500 lagunek eta beste 220 bat izan ziren belarriprest. Hikaldiarekin ere bat egin zuten. 633 lagunek hika aritzeko konpromisoa hartu zuten. “Atxikimendu handia

izan du”, nabarmendu dute Doberatik. Hirugarren edizioako parte hartze datuekin alderatuta, murriztu egin da Euskaraldiarekin bat eginiko norbanakoen kopurua. Finkatua zuten helburua ez dutela bete adierazi digute baina bada arreta deitzeko moduko datu bat; banatu duten txapen zenbatekoa. “Esan zitzagun aurreko edizioako kopurua gehi ehuneko txiki bat gehiago eskatzeko”. Hala egin zuten eta “denak banatu ditugu”. Beraz, izen-emate kopurua murriztu arren, handitu egin da txapa hartzera joandakoen kopurua eta alde horretatik pozik direla adierazi digute, nahiz kalean ez duten sumatu aurreko edizioako ikusgarritasun maila bera izan duenik Euskaraldiak.

Halere, antolaketa lanetan mugimendu handiagoa izan dute. Aurreko edizioetan Doberak

hartu izan du dinamizazio lanaren ardura osoa bere gain. Gehiegizkotzat jota, Euskaraldiaren koordinazio orokorretik herri batzordeak osatzearen garrantziaz jabetuta, lankidetzaren saretzearen aldeko apustua egin dute aurtengoan. “Bilera ireki bat egin eta ezustekoa izan genuen, jende asko etorri zen”; norbanakoak, elkarteak... Eskertzekoa izan dela diote, ardurak banatzea ahalbidetu dielako izen-emate postua jarri edota ekimenak antolatzerakoan. Lankidetzaren horrek ere hizkuntza ohiturak aldatzeko ahalegin horretan elkarlanean aritzea erraztu die. “Hemen, elkarte eta eragile piloa dugu. Helburu berearekin aritu gara lanean; ezusteko ederra izan dira auzo elkarteak”. Izan ere, ahalegin berezia egin nahi izan dute, tokian tokiko bizilagunen eskutik Euskaraldia herri erdigunetik auzoetara hedatzen.

Ildo horretan, gustura dira izan duten emaitzarekin. “Helburutzat genuen eragileak identifikatzea, lankidetzarako. Lehenengo hartueman gisa oso baliagarria izan da Euskaraldia”.

Euskaraldiaren enbaxadore taldea, hamaikakoa osatzerakoan sektore ezberdinetako herriki-deak erakartzen saiatu ziren, bakoitzak beretik kontu zezan nola bizi den euskaraz. Hortik identifikatu ahal izan dituzte “ze arloetan egon daitekeen eragiteko beharra”. Hamaika eguneko ariketa kolektiboak igarota,

argi diote, “txapak kendu ditugu eta hemendik aurrera zer? Eragiten jarraitzen segi behar dugu, guk behintzat horretan segiko dugu”.

Erabilera datuak iraultzea

Herri barruko lankidetzaren sustatu dute baita mugakide diren udalerriak bidelagun dituztela. Amaitu berri duten edizio honetan bezalaxe. Izan ere, Hernanik Astigarragarekin egun-pasa ederra antolatuta zuten, herri kirol, bazkari eta ekintza gehiagoren bueltan.

Astigarragan 65 entitateek eta 789 norbanakok bat egin dute laugarren Euskaraldiarekin, 2022ko edizioan baino ehunetik gora izen-emate gehiago izan dituzte bertan; norbanakoei dagokienez, %86 inguru ahobizi izan da (682) eta beste 107 belarriprest. Ariketa kolektiboak iraundako hamaika egunetan, gainerako udalerrietan bezalaxe, Astigarragan ere “jendeak izena eman arren, zaila da jakitea ariketa nork egin duen egiaztatzea”, bertako herri batzordetik aipatu digutenez. Halere, “txapak ikusi dira eta edizio honetan parte hartzea handitu da”. Honenbestez, gaineratu dutenez, “pentsatu nahi dugu ariketa jende gehiagok egin duela”. Izan ere, Astigarragak ere Hikaldiarekin bat egin du. Horren bidez, besteak beste, gazteen parte hartzea erakarri nahi zuten. Jarria zuten helburua bete dutela adierazi digute. Eskuartean dituzten datuen arabera, “gazte askok eman du izena”. Orohar izena emandakoen herenak adierazi du Hikaldian parte hartzeko konpromisoa.

Jakina denez, azken hamarkadan nabarmen hazi da aipatu udalerria eta harekin, noski, biztanleria. Hizkuntza ohituretan eragin zuzena izan du. Izan ere, kezka badute euskararen erabilerrari dagokionean. “Datuen arabera, hamarretik zazpi edo zortzik badakite edo ulertzeko gai dira, baina hamarretik hiruk soilik egiten dute euskaraz”. Datu horiek iraultzeko bidean, urratsak ematea zuten erronka, Euskaraldiaren laugarren edizioaren bidez. “Bagenekien zaila zela, baina horretan eragiten saiatu nahi genuen”.

Herri batzordea otsailean osatu eta hasi zen biltzen. Dozena erdi bat bilkura pasatxo egin dituzte. “Lanerako talde polita



Andoaingo Hamaikakoa, apirilean egindako aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

izan dugu, lanerako gogotsu ziren osatua". Herrian, hezkuntza, kirol edota aisialdian eragiten dihardutenekin bildu eta informatzen aritu dira. Hamaika egitasmo bideratu dituzte; hamaikakoa osatu zuten, euskarazko film laburren proiektzioa eskaini, Mintzodromoari ere tokia egin zioten edota aipaturiko egunpasa antolatu zuten mugakide dituzten hernaniarrekin.

Euskaraldia igarota, gainerako herrietan bezalaxe, eragiten segi beharra dagoela nabarmendu dute, "365 egunez ariketa

horrekin jarraitzea". Ziklo honen ondotik egokitu da Astigarragan aurkeztekoak zirela udalerrri mailako euskara elkarte berria, Astindu izenekoak.

Jokamoldeei eusten jarraitzea

Ildo beretik mintzatu zaizkigu baita Usurbil aldetik ere. 852 herritarrek eman dute izena laugarren Euskaraldian, aurreko edizioan baino gutxiago. Halere, izena eman gabeko herritar gehiagok parte hartu dutela ohartarazi dute. "Beraz, datuek esaten dutena baino

jende gehiago dago Usurbilen ere euskararen erabileran jauzi bat emateko gogoz".

Zenbakitan, %88,3a 753 herrikide ahobizi rolean aritu dira, 109 herrikideek belarriprest moduan parte hartu dute. Izena emandakoen %61,9a (527 herritar) emakumezkoak izan dira, gehienak; 318 (%37,3) gizonezkoak, 7 izan dira ez-bitarrak (%0,8). Euskaraldia Usurbilen dinamizatzen aritu den herritarren batzordetik gazteek izandako parte hartzea ere nabarmendu dute. 204 izan dira 30 urtez azpikoak (%24a),

117 herrikide 60 urtetik gorakoak (%13,7) eta gehienak 30-60 urte artekoak, 531 guztira (%62,3). Lerrootan aipaturiko gainerako udalerrrien antzera, Usurbilek ere Hikaldian izena eman zuen, baita herritarrek ere. Euskaraldirako apuntaturikoen %58,4ak adierazi dio atxikimendua, 498 herritarrek, erdia, %52,8a emakumezkoak izan dira, 263 guztira. "Emakumezkoen artean hika gehiago erabiltzeko gogoia aldarrikatzen dute datuek", Euskaraldiaren Usurbilgo herri batzordetik nabarmendu dutenez.

Entitateak, babesgune

Norbanakoez gain, Euskaraldiko ariketa "modu babestuan egiteko aukera" eskaini diete entitateek bertako kideei nahiz herrikideei. Baita Usurbilen ere. Udalerrri honetan, askotariko 33 izan dira laugarren edizioarekin bat egin dutenak (aurreko edizioan baino hiru gehiago), baita hainbat ekintza bideratu ere; besteak beste, ateratako talde argazkiekin eman diote ikusgarritasuna parte hartze modu horri.

Bi erronka zituen herritarren batzorde honek, Euskaraldia Usurbilen herriratzeko; alde batetik, "Euskaraldiaren ariketari presentzia eman nahi genion, giroa sortu, kaleak astindu". Horretarako, "udalerriko txoko ezberdinak koloreztatu ditugu". Horrekin batera, buruhandiek, kantu taldeak edota Zumarte musika eskolakoek giroturiko herri kalejira batekin emandako hasiera edota musikatua izan zen amaiera "ekitaldiak jendetsuak izan ziren Usurbilen". Hitzordu guztiok udaberri partean egiteak, gainera, "ekimenak antolatzeke aldartearen eta giroan onura ekarri duelakoan gaude".

Herritarrei Euskaraldian parte hartzea erraztu nahi izan zien Usurbilgo herritarren batzordeak, izena emateko mahaiaren bidez "txapa eskuratzeko aukerak zabalduz, entitateei gonbidapenak eta informazioa luzatuz beren kideei ekimenean parte har dezaten... Hori gutxi balitz, herritarrak Hikaldian izen ematera ere animatu ditugu". Bestalde, "ikastetxeek egin duten lanketa, gaztetxoak ere xaxatzaila izan zitezen Euskaraldian, izan unitate didaktikoen bidez edo izan antolatutako ekimen bereziekin.

Euskaraldia, Andoainen

Datuei erreparatuta, Euskaraldian izena eman dutenen kopurua, orotara, 1209 pertsona izan da. Gehienak, *ahobizi*, rolean aritzeko: 1028. Gainerakoak, berriz, *belarriprest* aritzeko asmoa agertu zuten: 181. Ariguneak 33 izan dira, denera. Euskaraldiaren balorazio orokorra egin zutenean, Gasteizen adierazitakoa bete-betean eman da Andoainen: "Nahi baino txapa gutxiago ikusi ditugu kalean, eta hori aztertu beharrekoa da. Zergatik pertsona batzuek txapa hartu bai baina gero janzten ez duen. Izan ere, askotan aipatu dugun moduan, txapa ezinbesteko elementua da ariketa modu eraginkorrean egiteko". Eta, izen-emateei dagokionez, badira aurreko urteetan izena eman zutelako eta berriro ematea beharrezkoa iruditu ez zaielako.

2025eko Euskaraldian hiru hitzordu nagusi izan dira Andoainen: Hamaikakoaren aurkezpen-ekitaldia, Plaza Morean; Xaxafest jaia, Ondarreta herri eskolako jolastoki estalian; eta, Mintzodromoa, Plaza Morean. Izan dira gehiago, hala nola, bertso-bazkaria eta kultur ekitaldiak Ezin aipatu gabe utzi egitasmoak bideratzeko herriko hainbat eragilek erakutsitako prestutasuna. Baita Andoaingo Udaleko Kultura eta Euskara lanskailarena, Euskaraldiaren baitan iragarritako hainbat ekitaldi antolatu dituztelako.

Euskaraldia, Urnietan

Urnietan, Euskaraldiak utzitako zenbakiei begira ipinita, orotara, 563 parte-hartzaile izan ditu aurtengo edizioak: Andoainen kasuan bezala, Urnietan ere, *ahobizi* rolean eman dute izena herritarrek nagusiki, zehazki, 454 lagunek. Hala, *belarriprestei* dagokionez, 97 bizilagunek agertu zuten rol horretan izena emateko prestutasuna. Hori horrela, 12 entitatek hartu dute parte, udaberri honetan, hizkuntza-ohituretan eragiteko helburu duen erronka erraldoian.

Euskaraldia maiatzaren 15etik 25era izan arren, hasi aurretik, baita bitartean ere, makina bat hitzordu antolatu ditu egitasmoa antolatzeke ardura hartu duen eragile-taldeak: kantujira, bertso-pilota, "Lurdes Iriondo, isilarazitako ahotsa" liburuaren aurkezpena, Adarrara irteera gauez, zine foruma, Magale-Salestarak ikastetxeak antolaturiko jaia, mintzodromoa... Maiatzaren 18an, igandearekin, Euskaraldiaren ekitaldi nagusia antolatu zuten San Juan plazan. Bertan, Hamaikako ofizialaz gain, gainerako hamaikakoak aurkeztu ziren, sektoreka banatuta, Urnietako Euskaraldiaren bereizgarri. Hori horrela, ekimena biribiltzeko itxiera-festa ere egin zuten, Xoxokako eskolan, maiatzaren 25ean. Edizio honetarako dinamizatzailea izendatzea lortu ez bada ere, txalotzekoa da antolakuntzaren ardura hartu duen herriko eragileen taldeak egin duen lana.



Nafarroa plazako oholtza handia San Juan jaietako emanaldiak hartzeko prest dago, Andoaingo Rock Jaialdia igaro eta gero. AIURRI

Nafarroa plaza, prest

San Juan jaietan Nafarroa plaza gune nagusietakoa da, bertan egiten baitira kontzertu handiak. Txosnagunea ere bertan jartzen dute. Gunea dagoeneko prest dago, behin Andoaingo Rock Jaialdia igarota. Test erabakiorra da hori, taulagaina ordurako prest egon behar baitu. Aurreko larunbatean, nazioarteko taldeez gozatzeko aukera izan zen bertan. Arratsaldean hasi eta ordu txikiak bitarte, askotariko musika proposamenak entzun zituzten rock jaialdira hurbildu zirenek. Rockak aldaera asko ditu eta horien lagintxo ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen du jaialdiak. Laster, jaien baitan, emanaldi-sorta berria izango da plazan.

Sanjuanetako musika eskaintza

Egunotan, egitaraua banatzen ari dira udalerrian: ekainaren 20an hasita, Andoain San Juan jaietan murgilduko da. Askotariko musika proposamenak entzuteko aukera paregabea izango da, bereziki, Goikoplazan eta Nafarroa plazan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Sanjuanak hastear dira eta, honatx, zuzenean ariko diren musika taldeak.

Ekainak 20, ostirala: Punk doinuak

Punk rock doinuak nagusituko dira Nafarroa plazan, ostiral gauean. Bergarako Brigade Loco taldea ariko da. Euskal Herriko hainbat agertokitan aritu dira eta ezin aipatu gabe utzi futbolarekiko duten lotura. Anoetako Bultzada harmailaren singlea kaleratu zuten eta 2023an Reale Arenan bertan jotzeko aukera

izan zuten, Europa Leagueko partida batean. Gaualdia osatuko du Tarragonako Crim taldeak. Sarean jarraitzaile asko dituzte eta, urrutira joan gabe, maiatzean Bad Religion taldearen biran parte hartu dute.

Ekainak 21, larunbata: Erromeria eta berbena-taldea

Goikoplazan, Olgetan erromeria taldea ariko da. Kide gehienek Andoaingo Aita Larramendi ikastolan ezagutu zuten elkar eta, iaz, San Juan jaietan emanaldia egin zuten. Jendetza erakarri zuten eta aurten ere erre-

pikatzeko gogoz daude. Erromeria eta plaza doinuekin ikuskitu bizia egin ohi dute.

Nafarroa plazan Nueva Etapa Orquesta taldea ariko da. Berbena-taldea da, ibilbide luzekoa, eta estatuko dozenaka udalerri-ran jo ohi dute. Amonik ez dute behar, beren aurkezpen-txartela irakurrita: "Taldea eraberrituak bere hasierako ari-mari eusten dio, ilusio berri-tuarekin eta azken teknologia-rekin lagunduta, eta horrek hautagai ezin hobea bihurtzen du kalitatezko ikuskizun handi bat lortzeko".

Ekainak 22, igandea: Suneren estreinakoa

Ganbara tabernako agertokitik Goikoplazara jauzi egingo du Mingo Fisuras taldeak. Pop-rock estilo indartsua lantzen du Enrique Mingo eta Iñaki Fisuras musikariak buru dituen Donostiako taldeak. "La fiesta es aquí" disko berriko kantuak entzuteko aukera izango da ilunabarrean. Gauean Süne kantaria arituko da Nafarroa plazan. Huntza taldearen ibilbideari amaiera emanda, Josune Arakistainek ibilbide artistiko berriari ekin dio. Gaualdia osatzeko, hiru disko-jartzaile: Garaiko, Pires eta Chanca.

Ekainak 23, astelehena: Nogenen gaua

Nogen ariko da Nafarroa plazan, San Juan bezperako emanaldian. Lehen bi disko arrakastatsuen ondoren, donostiarrak ohol-tza gainera itzuli dira Aben Cirkel bere hirugarren diskoa aurkezttera. Lan berriarekin mugak hautsi eta orain artean ezezagun zituen latitude berrietara heltzea du helburu taldeak, eta horretarako Ane Negueruela abeslariaren ahots hunkigarri eta

boteretsuaren zein gainerako taldekideen bultzada eta bizitasunaz baliatuko dira. Bezperako hiru disko-jartzaileekin luzatuko da gaua.

Ekainak 24, asteartea: Euskal erromeria

Axerien egun handia, folkloerari eta tradizioari jarraipena eman asmoz, Trikidantz taldeak erromeri doinuak beteko du Nafarroa plaza. Xede argia dute: "kontzertuetan jendeak gurekin dantzaren kantu egitea".

Ekainak 25, asteazkena: Puro Relajo

Azken urteotako joera ikusita, jaietako azken eguneko emanaldiak ikusle gehien elkartzeko ditu. Izan ere, Puro Relajo engarrenera ariko da San Juan jaietan. Rantxerak eta mariatxi-doinuak eginez parekorik ez duen taldea da, eta Andoainera etorri diren aldiro ehunka zale-tu hurbildu dira.

Aurtengo jaiak, beraz, punk doinuekin abiatu eta rantxerekin amaituko da. Eta, tartean, askotariko estiloak Goikoplazan eta Nafarroa plazan.